

**AINHOA UNANUE**

## **“Idaztea nire bizitzaren zati bat izan da beti”**

**Bermeotarrak kaleratutako lehen liburuaren inguruko tertulia izango da datorren martitzenean, liburutegian.**

M. Zabalondo

'49 poema, 49 egun' izeneko poema liburua kaleratu du Ainhoa Unanue (Bermeo, 1981) bermeotarrak. Argitaratu duen lehen liburua da. Datorren martitzenean, hilaren 11n, liburuaren inguruko tertulia izango da Bermeoko liburutegian, 19:30ean.

**Zure lehenengo liburua izanik, orain arte, zein izan da jendearen erantzuna? Kritikarik jaso ahal duzu?**

Nik beti idatzi izan dut, denetarikoa. Idaztea nire bizitzaren zati bat izan da beti. Egia da kaleratzen dudana lehen liburua dela eta esan behar dut orain arte kritiken aldetik ez dudala kritika sendo sendorik jaso.

**Antolatu al duzu martitzenerako tertulia?**

Hurbiltzen den jendearen arabera era batera edo bestera egingo dugu, jendeak zer gura duen kontuan hartuta.

**Bi hizkuntzatan kaleratu duzu liburua, 49 poemaz osatua; 25 euskaraz eta 24 gaztelera. Arrazoiren bat al dago ala horrela atera zaizu?**

Nahita dago bi hizkuntzatan eginda. Horregatik ez dut argialetxeetara jo, eta ni neu arduratu naiz prozesu guztiaz. Hizkuntza bitan izanda eta euskarazko poemak gehiago izan arren, orain arte jasotako kritiken aldetik ikusten dudana da, moduren batean beti gaztelera euskara jan dezakeela. Beharbada, gizartean joera dago euskaraz egin arren euskarazko poemak ez irakurtzearena, edo gutxiago irakurtzearena, eta gaztelerazkoetara gehiago jotzearena. Euskal literaturaren zale batzuek esan didate gaztelerazkoek hitz joko gehiago dituztela.

**Zein motatako poesia egin duzu?**

Gizarte poesia edo poesia soziala da, salaketa poemak, poema kritikoak... Denetariko poemak daude.

**Txikitatik idatzi eta idatzi, eta lehen liburua orain atera duzu.**

**Zergatik orain eta ez lehenago edo beranduago?**

Beti idatzi izan dut, eta koaderno asko bete ditut. Baina oraingoan, hasieratik hilabete eta erdi inguru poemak idazten pasatu ostean, argi izan nuen hemendik liburu bat aterako zela, eta bi hizkuntzatan idatzia izango zela.

**Zure lehen poema liburuak bereziki irakurleren bat eskatzen al du?**

Lehen poematik argi izan dut kaleko jendeak esaten badit hau ez dut ulertzen, niri ez didala balio. Batez ere euskal literaturan oso irakurle gutxi daude, eta sarritan ematen du idazleentzat idazten dela.

**Zure poema batzuei musika ere jarri diete, ezta?**

Poemak sortzen joan nintzen heinean, oso melodikoak ziren. Donostiako taberna batean hainbat lagun batzen gara, horietako asko musikariak, eta horiek euren abestietarako letrak behar dituzte. Beraz, poemak idazten nituen heinean horiek musikari batzuei pasatzen nizkien.

**Beraz, zure poemaren bati musika jartzera animatzen denari horretarako aukera ematen diozu.**

Helburua liburua zabaltzea da eta, horrez gain, abestiren bat sortu gura duenak hemen ditu hainbat poema. Nirekin harremanetan jar daitezke; batez ere, talde asko hasi direlako poema batzuk musikatzen, eta ez errepikatzeko.